



Gatua Pítxitxi

M. Labègerie
Mold.: Aitor Amezaga

Allegretto

Am C+ C Am6 Dm F+ F Bdis

4 4

p *mf*

1 1
2 2

E Am E F E

5

9 2 A D m A m E7 A m 4

*Ez du uzten supazterra
badu lephoko superra
da gizen bezain ederra
iduri du kalonjerra*

*Gure gatua Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.*

*2.Eguna derama lotan
ase ondo ametsetan
iduri du bai egitan
kalonjer bat bezperetan*

*Gure gatua Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.*

*3.Jaun kalonjerra, barkatu,
zuri baitut konparatu
Pitxitxi ikiak baditu
ez zaio kaskoa pelatu*

*Gure gatua Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.*

*4.Lana baitzaio itsusi
ez du ihizin ikasi
saguño bati ihesi
nihaurk atzo dut ikusi.*

*Gure gatua Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.*

*5.Pitxitxi hiltzen delarik
ez baitu egin gaizkirik
zazpi izpirituatarik
bat baduke salbaturik*

*Gure gatua Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.*

*6.Nola bizi den lur huntan
hala gatuen zerutan
biziko da ametsetan
sekulorum sekulotan.*

*Gure gatua Pitxitxi,
da dena ilhe ta txitxi.*

